

Jose Martin Bustinza "Tubi" Bizkaiko txapeldun lasto altzatzen

11. orrialdea

Goioagak eroan eban txapela

Migel Angel Goioaga Undurragako zeanuriztarrak jantzi dau 2011ko Bizkaiko segalarien txapela. Abadiñon jokatu zan txapelketea garagarriaren 25ean. Bertan, beste arratiar bi izan ziran, Jon Intxaurre Zeanurikoa eta Jaime Atxa Areatzakoa, hirugarren eta laugarren egin ebenak hurrenez hurren. Bildu ziran 300 lagun ingururen artean arratiar asko eta asko izan ziran bertan. **11. orrialdea**



Bikaña diskoan parte hartu dau Asier Garcia billaroztarrak

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

147

2011ko abuztuaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Karobia isiotuko dabe San Justoko harestian abuztuaren 6an

Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean isiotuko da.

San Justo egunean Otzerimendiko bederatzi sukaldariak San Justoko karobia isiotuko dabe goizeko 11:00etan eta eguerdirantza kare bizia aterako da labetik, antxinako moduan eginda.

Hamaseigarren urtea da Zeanuriko Ipizki Taldeak karobia berreskuratu eta lanean ipinten dauala, beti be, sasoi baten bertan karegile ziran Arana anaïen zuzendaritzapean. Aurten, nobedade moduan, Otzerimendiko bederatzi sukaldariak emongo deusie su karobiarri.

Ekintza kultural ikusgarri honetatik aparte, sardinak bananduko ditu Iñaki arrandegiak hurreratzen diran guztien artean eta bazkari herrikoa be egongo da Justo eta Pastor santuen ermitearen aurrean. Txistulariak ez dira faltako jai giroa alaitzeko.

Hurrengo egunean, domekan, erromeria egongo da. Ganera, kanpai barria ipiniko dabe ermitan, pasa dan udabarrian ostu egin eben eta. Ipiniko eta kendu. Jaiak amaitutakoan, kanpai barria kenduko dabe, barriro ostu ez daien. **12. orrialdea**



Juan Arana karobian.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

ARRATIA

Historiaren detailtxu esanguratsuak

Areatzako Euskal Jaian Maribi Cañibek eta Esti Santistebanek erakutsi zituen XVI. mendean Euskal Herriko andrak eroiezan buru apaingarriak. Ama-alaba honeek hamabost urteko ikerketa lana egin dabe. Ikerketa horren ondorioak azaldu deusiez BEGITUri Sanca Alkarteko kide bi honeek.

Buru apaingarriak diru ahalmenaz, potereaz, eleiza eta inkisizioren indarrak, modaz, gure herriaren tradizioari atxekimenduz eta gizarte eta janzkerearen ebo-luzinoaz egiten deuskue berba.

XII. mendeko burukoak nahiko sinpleak ziran, baina mendeak joan ahala, gero eta handiagoak egin ziran. XVI. mendean hasi zan gainbehera, krisi ekonomikoa eta eleizearen debekuagaitik. Baina ez ziran guztiz desagertu, baseritar jantzetako painelu bilakatu ziran.

8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Gorbeia Central Park

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek eta Zuiako Kuadrilak Bilboko La Ribera azokan aurkeztu eben garagarriaren turismoari zuzendutako Gorbeia Central Park produktua. Bertako produktuak eta bertan egin daitezkean ekintzak eskeiniz turismoa erakartzea eta bertako ekonomia bultzatzea ditu helburu Central Park-ek. **5. orrialdea**

ARRATIA

Herririk herri, auzorik auzo, jairik jai

Abuztuan herriko Andra Mari jaiak ospatuten dabez Zeanurin eta Areatzan, sanbartolomeak. Auzuneetan, San Bizente, (urtailan bada be) San Lorentzo, Andra Mari, San Roke eta San Bartolome ospatuten dira. Sanantolinak hurrengo hilean izan arren, ospatuteko motorrak berotuten hasten dira Zeberion. **5. 6. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA
ZERBITZU INMOBILIARIOAK
Diman etxe barriak

Dima erdian.
Leku pribilegiatuan. Oso eguzkitsua.
2011ko urtean zehar hasiko gara eraikitzen.
2 eta 3 gelako etxebizitzak bainugela bigaz.
Garajeak eta trastelekuak.
Hurbildu zaituz Igorreko Arratia Inmobiliariara eta informazioa emongo deusugu.

KANTU HERRIKOIAK

DINGILIN DANGOLOA

Dingilin dangoloa enaz ni soroa, Santa Katalinako dendari koxoa.

Sakuen sartu deure sakuek zuloa, handixik agiri deu kadera koxoa.

Ume paskie, ezteuela lorik in behar!

Ababatxoa txingorin gorrin ez egin lorik basoan, azagariek jan ez egizen bildotsa zarealakoan.

Ababatxoa lo ta lo zuk orain eta neuk gero, zeuk gure dozun orduen baten biok egingu lo ta lo.

Laztanen portalean dagoz arbola bi, bata da naranjea bestea madari.

Haren ondoan dagoz dontzaila eder bi, bata da Mainton eta bestea Maintoni.

Txirrintxakatan akarra jantzan, astoa bibolin jotan, azagarie sueri puzke, erbie urune eraltan.

Perretxikotan nenbilenian Mendiolako basoan, dama polit bat topadu neuen ginerra baten ondoan.

Gaztia nintzan soroa nintzan jarri nintzakon ondoan, amentaltxu bat zabaldu eusten jarri naitela altzoan.

Dingilin dangoloa

Din - gi - lin dan - go - lo - a, e - naz ri so - ro - a,
San - ta Ka - ta - li - na - ko den - da - ri ko - xo - a.
San - ta Ka - ta - li - na - ko den - da - ri ko - xo - a.
A - ba - ba - tso - a tsin - go - rin go - rin, ez e - gin lo - rik ba - so
- an, a - za - ga - ri - ek jan ez e - gi - zen bil - do
- tsa za - rea - la - ko - an, a - za an.

Iturria: Patxi Bilbao Etxebarria (Dima 1903-Lemoa 1992).

1978an, Dimako Bargondia auzoan, Ruper Lekuek jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

Abuztuaren 1etik 7ra

Vargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 696 782 189

Abuztuaren 8tik 14ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

Abuztuaren 15etik 21era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

Abuztuaren 22tik 28ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

Abuztua. 29tik urri lehenengoaren 4ra

Vargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 696 782 189
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandioa: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarik ez dago.

* Adi udako ordutegiari

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Maialen Egileor, Clara Lujá Azpiri, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Arratiako AAM eta MGren artean gertatutakoa

Bagilaren 18an, Igorreko San Antonio jaietan, Materia Grisek, Goveorsek, Korumbak eta Izargik kontzertuak jo zituen. Egun horretan MGren kontzertuan gertatutakoa azaldu gura dogu.

MGk eskakizun bi egin eutsazan Jai Batzordeari: bata, ordu eta erdiko kontzertua emon ahal izatea, eta bestea, kontzertuan parte hartuko eben guztiai bazkari eder bat emotea. Noski, dirua jaso barik ordainetan. Batzordean hau onartu zan eta MGk zapatuan jotea ebatzi zan.

Soinu proba eta ikuskizuneko ordutegiaren arabera, Materia Gris 22:20ean taula ganean egon behar zan. Ondoren 22:25ean teknikoak, taldeak berak prestatutako abesti bat ipini behar eben, jentea girotzeko. Jarraian 22:30ean teknikoak "introa" jarri eta MGk bere kontzertua emongo eban 00:00ak arte. Eta azkenik, Arratiako AAMk Presoen Eskubideen Aldeko Manifestazioa egingo eban 30 minutuz.

Ez zan ordutegia bete baina. Arratiako taldea 22:20 eszenarioan egoan baina han ez zan teknikorik ageri. Etxoten pasa eben denporea, teknikoak heldu eta kontzertua hasi arte. Hau da 22:50ak arte. Ordu-tegiagazko 20 minutuko atzerapenagaz ekin eutsan Materia Grisek

bere 5. urteurrenerako ikuskizunari. Batzordeagaz eta teknikoakaz hitzartutakoaren arabera, ordu eta erdiko programea gertatuta eukan talde arratiarrak.

23:55ean Arratiako AAMko partaide batek teknikoakana jo eban, ea kontzertua adostutako orduan amaituko ete zan jakin guran. Eta bide batez, 00:00ak inguruan manifestazioa egitea posiblea izango ete zan jakitera. Teknikoak, baietz erantzun eutsien eta gura izatekotan une haretan bertan moztu ahal ebela kontzertua. AAMko partaideak ezezkua emon eutsen baina MGk amaitzen joan beharko ebala be azaldu eban. 00:05ean AAMkoa barriro be teknikariakana hurbildu zan azalpen eske.

Teknikoa orduan, Materia Grisekoengana zuzendu zan eta ea zenbat abesti falta ziran galdetu eban. Arratiarrak 3 edo 4 abesti geratzen zirala erantzun eta kontzertuagaz jarraitu eben. Momentu haretan, txosna gunea guztiz amatauta eta edariirik zerbitzau barik egoan, manifarako jentea atzean etxoten eta etenbarik minutuak pasa ahala jentea urduritzen hasita. Eta noski, Presoen Eskubideen Aldeko manifestazioak be bere denporea behar ebala kontuan izanda, AAMkoak kontzertua etetea eskatu eben 00:18an. Justu-justu MGk bere azken abestia hasia ebanean. Une haretan jarrera gaizto eta ezkorak ikusi ziran talde bien artean. Eszenariotik kanpo, txis-

tu batzuk be entzun ziran, zaratak, haserrea eta abar luze bat.

Bagilaren 30ean Materia Grisek eta Arratiako AAMk batzar bat egin eben. Bertan parkamen hitzak alkartrukatu ebezan. Materia Grisek kontzertu berezia zala eta, ensaiatutakoa jo gura eban, (ulertzekoa) baina teknikoan 20 minutuko atzerapenak dana desfasau eban. Bestalde AAMkoak manifestazioa egin gura eben eta euren denporea bukatzekotan egoala ikusiaz urduri jari ziran. Honegaitik eskatu eben kontzertua etetea (ulertzekoa baita).

Gertatutakoa modu zintzoan azaldu dogula uste dogu. Alde bietako eretxiak batzean saiatu gara modu objektibo baten. Beste barik, agur.

ARRATIAKO AAM ETA MG

Igorreko anbulatorioko kontestadorea

Bildu Zeanurik gai honen aurrean zera esplikau gura dau:

Garagarrilaren 19an izandako plenoan, beste puntu batzuen artean, Igorreko anbulatorioko kontestadorearen gaia mahairatu zan. Kontua da mediku zein praktikan-teagaz ordua hartzeako problema handiak emoten deutzazala; batez be, edadeko jenteari.

Bildu Zeanurik proposatu eban adostutako testu baten bidez, Zeanuriko Udalak kexa ofizial bat egitea. EAJ-PNvek adostasun hori kontuan izan barik, bere mozino partikularra aurkeztu eban. Horretan agertzen dan gehienagaz nahiz eta Bildu Zeanuri bat etorri, uste dau erabili diran formak eta protagonismo-gura ez dirala onargarriak. Hori da, hain zuzen be, Bilduko zinegotziak botau ez izanaren arrazoia. Halanda be, Bildu Zeanuri gai hau konpontzen ahaleginduko da, beti be adostasun baten barruan.

ZEANURIKO BILDU

ERETXIA



CLARA LUJA AZPIRI

Kazetaritza ikaslea

Azti baten garrantzia

Harry Potter-en sagearen azken filma estreinau da orain dala gitxi, serieari amaierara emonaz. J. K. Rowling autorearen zazpi liburuak eta honeetan oinarritutako zortzi filmak osotu dabe seriea, eta askorentzat amaiera honek sasoi baten amaierara marketan dau. Nazi-noarteko fenomeno bihurtutako azti gazte honen abenturak garrantzi handia izan dabe azken hamarkadako gizartean, batez be gazteen artean.

Harry Potter-ena istorioa konplexua da baina baita unibersala be. Liburuaren bidez bizitzaren eta munduaren ganeko istorio bat kontetan da, bere alde positibo eta negatiboakaz. Personaje sakonak eta ondo eginak laguntzen deutsie irakurleari magiari buruzko epopeia honetan sartzean eta seguru asko kontaktearen kalidadea izan da gazte asko eroan ditua liburu guztiak zaletasun handiz irakurtera.

Harry Potter ume eta gazte askorentzat literatureagazko lehen kontaktua izan da. Askorentzat irakurtea, gauza aspergarria eta emozino bakoa zan, baina Harry Potter-ek gauzak aldatu zituan. Bat-batean, umeak ehundaka orri irakurten zituen egunero, eta liburu barrien agerraldia gertakizun galduezina zan. Rowlingen liburuai esker gazte askok ezagutu dabe lehen aldiz literaturearen plazerra.

Ez umeak bakarrik, helduak be disfrutau dabe Potter aztiaren

abenturakaz. Personajea umea izatetik gizondu arte segidu dabez bere abentura eta desbenturak, adinik bako istorio bat dalako. Halanda be, belaunaldi bat Harry Potter beragaz hazi da, eta bere arazoak kontaktan islatuta ikusi ditu. Harry Potter-en amaierak haurtzaroren amaierara markau dau haregaz hazi diranentzat, inflexino-puntu bat izan da, duda barik.

Egia da fikziozko saga bat baino ez dala eta bereziki magia parteak ez dirala oso errealistak. Baina alegoria polita eta osoa da, eta transmitiduten dituan baloreak (adiskidetasuna, solidardadea, bardintasuna, ausardia...) hazten dagoan edonorentzat erreferentzia onak dira.

Hau guztiau kontuan hartuta, normala da bere amaierak emozino asko piztea zaleen artean. Atzera begiratzean eta haurtzarora gogoratzean, Harry Potter-ek beti izango dau bere leku berezia belaunaldi oso batenentzat.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Irizkia



Likidoetan egoten diran apurrak tresna honek daukan sarean edo telean geldituazotzen ditu; esaterako, sukaldean kafea, tea edo mantzanilea egitean irizi/irazi egiten da. Beraz, irizkia irizi aditza eta -ki atzizkitik sortutako berbea da. Arratian, beste berba honek be erabilten dira: iriztontzia, iraztontzia, iratzia eta errondanea; batuaz, barriz, iragazkia da.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea suzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez, euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN

MATXALEN
LEGARRETA IZA

M15

Udal hauteskundeetarako astebete falta zala, uriburuetako plazak jentze betetzen hasi ziran Madrilgo Puerta del Sol abiapuntutzat hartuta. Herritarren hotsa islatuko dauan gobernu eskatzen eben bertan bildutakoak, egungoa ekonomia kapitalista-finantzarioaren menpe eta partidu politiko indartsuenen interes partikularren esanetan dagoala salatuz. Arabiar udabariagaz parekatu eben batzuk eta ez dira gitxi izan herri mobilizazioen aro barri baten aurrean gagozala aldarrikatu dabenak. Baina badago horrenbeste esaterik?

Bat-batekotasuna eta lidergorik eza dira mobilizazio honeen ezaugarriak. Asanbladetan parte hartzeako megafonora hurbildu, txandea etxon eta berbea hartu, horixe da egin beharreko guztia. Kanpa-

tutakoak argi itxi gura izan dabe ez dagozala ezein kolektibo, alderdi politiko zein siglaren pean; gerturatu gura dauanak, norberaren izenean egin behar dau eta ez talderen batenean. Eztabaida ideologikoetan murgildu orde, eguneroko ezinegonak konpartidu eta kezka konkretuetan arreta jarrita batera aurrera egiteko bideak jorraztea daukie helburu.

Batzuek txalotu egin dabe funtzionetako modu hau, beste batzuen artean errezeloa sortu dau. Mesfidati dagozanak esaten dabe eraldaketak ez dirala egun batetik bestera etorriko, urte askotako lanaren ostean baino, eta ezer gitxi lortu daitekeala orain arte mobilizatu ez dan jentzearen behin behinako parte hartzetik. Egunak aurrera doaz, halanda be, eta plazetako mobimentuak bizirik dirau; badirudi ganera jarraipena izango dauala.

Ekimenaren iraupenak erronka bat baino gehiago planteetan dau. Zelan antolatuko da epe luzera? Zein egitura hartuko dau? Zelan buztartuko da alde aurretik existiduten diran mobimentu eta kolektiboak? Eta, modu berean, zelan enkajauko dabe honeek ekimen barriaren presentzia iraunkorra?

Erronka honeei erantzuteko erakusten daben gaitasunaren arabera baieztatu ahal izango dogu herri mobilizazioen aro barri baten aurrean ete gagozan.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Bizkaiko Segura Txapelketa"

1

Otxandion izan zan segaren jarduna Bizkaiko txapelketa santiago eguna nahiz ta sasoa izan genduan iluna segalariet egin eben lan txukuna.

2

Sei kirolari gogor hurbilduz bertara Gondra beteranoa betiko erara Maguregi zaharra eta Larrañaga eta beste hirurak Arratiko banda.

3

Igazko txapelduna Jaime aretzarra gaztea ta abila ta segan azkarra nahiz ta eduki eban egun nahiko txarra gaztea da ta oindo badauko bedarra.

4

Trontzan txapelduna ta segan gitxi falta Intxaurre zeaniztarra mutiko aparta bere inderrak beti ondo aterata saio polita eta kiloak millaka.

5

Ta Goioagak barriz zelango praktika kodañan elegante lendik ikasita asko gozatuon momentu polita semeari txapela buruan jantzita.

6

Ta holan amaitu zan Otxandion dana gero etxakun falta jana ta edana zorientakoa izin zan batutzaileen lana ta hau izin de zuontzat eduki dodana.

BEGI TXINDORRA

Begitu irakurleai –bateri izan ezik- aurten etxean ahaztu egin jakielat argazki-makina dirudi, oraindino batek bakarrik bialdu deuskuz argazkiak eta. Gure kolaboratzaile dan Clarak Parisen ateratako argazki bi bialdu ditu. Hona dakarguna *Champs Elysées* iluntzean tituluko da. Beraz, momentuz, eta besteren batek argazkirik bialdu arte, saria irabazteko aukeren %100 ditu lehiakide bakarrak. Dana dala, BEGITUN espero dogu jentea argazkiak bialtzen animetea, lehia apur bat egon daiten eta irakurleen begiradea dauan munduari lehiotxu bat zabaldu teko txoko honetan.

Gogoratu urri lehenengoaren 25a arte bialdu daitezazala argazkiak begitu@topagunea.com helbide elektronikora eta gehienez 3 argazki personako. Ez ahaztu esatea nork, non eta noiz atera dauan argazkia.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
 Ureztaketa instalazioa
 Mantenua eta Inausteta
LORAZAINTZA
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com


Ortodontzia
 Implantateak
 Estetika
 Marina Urigoitia Aiderkoa
 Odontologia
 Bidebarri 1, behea
 48140 Igome-Bizkaia
 T. 94 631 50 39
 Nafarroa Zirkuluak 110
 R.P.S. 25/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA
 Iñaki
 Martín Gorostiza
 Tel. 607 272 424
 610 271 128
 Tel/Fax: 94 433 22 28
 Ubideratzeak
 Lurrerauzketak
 Baso pistak
 Ur Putzuak
 Era guztietako hondeaketak
 Bº URIBE - 48144 ZEANURI
 e-mail: margoiza@euskalnet.net

ZEANURI

Andramarietan parau barik

Jaietako bost egunetan, herriko txistulari eta trikitilariak esnatuko dabez zeanuriztarrak euren soinu alaiakaz.



Igazko Zeanuriko txupina.

Erredakzioa

Holan emongo deusie hasieraa egunari herritarrek eta bertara hurreratutakoak. Edade taldeak euren eguna eukiko dabe. Holan, barikua gazteen eguna izango da eta ESKEAN eta ESNE BELTZAK rock kontzertuak eskeiniko dabez. Zapata, umeen eguna izango da eta txikerrenentzat pailazoak eta jolasak egongo dira. Jubiladuen egunean, bariz, barauskarria eskeiniko jakie edadetuai plazan.

Gontzal Mendibilen *Neure txiki polita* ikuskizunak, antzerkiak, pelota partiduak, lehiaketa gastronomikoak eta beste gauza askok Zeanuriko herriko jaietan parau barik ibilteko aukerea emongo deutsee heritar eta kanpotarrai.

ABUZTUAK 12, barikua. Gazteen gaua

15:00etan, Herri bazkaria.

17:00etan, Pelota partiduak. Zeanuriko Txapelketako finalak.

18:00etan Rally poteoa.

19:00etan, Txupina eta kalejirea hiru zubietatik herriko txistulari eta trikitilariakaz. Jarraian, koadrilen aurkezpena bertsoetan.

23:00etan, ESKEAN eta ESNE BELTZA taldeen kontzertuak. Ostean, erromeria AKERBELTZegaz.

ABUZTUAK 13, zapatua. Umeen eguna

11:00etan, Kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:00etan, "Munduari bira jolasean" esku-lan tailerrak plazan.

17:00etan, Pelota partiduak Ibarreta frontoian. Zeanuriko Txapelketako finalak eta sari banaketak.

17:30etan, KIKI, KOKO ETA MOKO pailazoan *Sustrai bizi-bizikiak* ikuskizuna plazan.

19:00etan, "Tirun-ttirun" erromeriagaz batera jantza txapelketak.

22:30etan, ZEANI antzerki taldearen *Ordubete Gerbasio* gaz antzezlanak.

Ostean, erromeria IZARGIgaz.

ABUZTUAK 14, domekea. Jubiladuen eguna

11:00etan, Kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:30etan, Mezea eta ostean barauskarria jubiladuentzat plazan.

18:00etan, Koadrilen arteko herri kirolak.

20:00etan, Salbea Andra Mari parrokian.

22:30etan, *Neure txiki polita* GONTZAL MENDIBILEN ikuskizuna plazan. Ostean COVERING musika taldea.

ABUZTUAK 15, astelehena. Andra Mari Eguna

11:00etan, Kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:30etan, Mezea.

12:00etan, EL DESPISTE fanfaria herrian zehar.

18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXI. edizinoak.

22:30etan, Play-Backa plazan.

00:00etan, Erromeria JOSELU ANAIK taldeagaz.

ABUZTUAK 16, martitena. San Roke eta sukaldarien eguna

11:00etan, Kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:00etan, Tortilla eta paella lehiaketen hasieraa (puntuetakoa paellak oilasko, behi edo koneju okelaz egindakoak izan beharko dira).

13:45etan, Tortillak eta paellak aurkeztu.

14:00etan, Sari banaketak.

18:00etan, Koadrilen arteko jokoak eta mozorroak.

21:00etan, JOKALDI taldeagaz erromeria.

Ostean, txokolata eta jaien amaieraa hiru zubietatik.

ARRATIA

Landa eremuko esperientziak turismoari zabaltzen deusaz Gorbeia Central Parkek

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek eta Zuiako Kuadrilak Bilboko La Ribera azokan aurkeztu eben garagarrilean turismoari zuzendutako Gorbeia Central Park produktua.

Erredakzioa

Honetan, bertako produktuak eta bertan egin daitekezan ekintzak batzean dira. Inguru honetako Araba eta Bizkaiko herrietako erakunde eta enpresak, Areatza Artea, Ubide, Zeanuri eta Zerberioak tartean, eskeintzen dabena jaso eta "esperientziak" eskeintzearen ildotik sortu dabe turismoa erakarteko eta eremu honetako ekonomia bultzatzeko eskeintza barritzaile hau.

Gauz parketik ibilbidea, eguna zabaltzen ikusi, artzain lanetan emotea eguna, izarrai begira afaltza edota *qi gong* egitea dira Gorbeia Central Parkek eskeintzen dituan ekintzetako batzuk.

Ekonomiari bultzadea

Inguru honetako natura eta giza ondarea dala eta, aspalditik ebitan Gorbeialden turismoarako potentzialitatea aprobetxau guran. Horretarako, "daukaguna bultzatu, modu fresko baten eta datozenai esperientziak eskeini" egiten deutse Gorbeia Central Parkek, Iñaki Saenz de la Fuente Gorbeialdeko Turismo teknikariaren berbetan. Proiektu honen helburua bikotxa da: alde batetik, inguru hau, hemengo jentea eta hemengo ondarea ezagutzera emotera; eta bestetik, bai turismoagaz lotutara daukien ostalari eta tabernariak, baina baita lehenengo sektorean behar egiten dabena beste bezero batengana heltzean lagundutea.



Jon Etxebarria Ipiñaburuko artzaina bere artaldeagaz.

ARRATIA

Josune Gorospe, Dimako zinegotzia mankomunidadeko presidente barria

Erredakzioa

Josune Gorospe Dimako EAJ-PNVko zinegotzia izango da Arratiako Mankomunitateko presidente barria, horretarako garagarrilaren 28an egin zan osoko bilkuran botorik gehien jaso ostean. Orain arte, Aitor Sorriketa Bediako alkatea izan da mankomunidadeko presidentea.

Gorospek EAJ-PNVren hamar

botoak jaso zituan. Bilduren hautagaia Igorreko alkatea dan Beinat Anzolak, bariz, zortzi.

Gorospek Sorriketaren ildo estrategikoa jarraituteko asmoa adierazo eban, eta batez be, eskeintzen diran zerbitzuak hobetuten eta modernizetan ahaleginduko da.

Bilduk idatzi bat irakurten itxi ez izana salatu dau

Lehenengo aldia da Bildu Arra-

tiako mankomunidadean dagoala eta koalizino honetako bozeroleak, lehenengotik idazkariari eta gero presidente hautatu barriari, testu bat irakurteko eskatu eutsan. Honek "berbea ukatu eutsala" salatu dau Bilduk prentsa ohar baten bidez. Eta Arratiako talderik bozkatuena izan zala 3.627 botogaz -EAJ-PNVk 3.612 boto izan zituan- ekarri gura izan dau gogora Bilduk.

ARRATIA

Baserrietan lapurretak ebitetako kanpaina abian Ertzaintzak

Erredakzioa

Ertzaintzak prebentzino eta jagote kanpaina bat abiatu dau baserrietan eta sakabanatutako gunetako etxebizitzetan gertatzen diran lapurretak ebitetako. Ekimen hau Durango eta Gernikako inguruetan gauzatuko da. Arratia Durangoko ertzaintzearen eragin eremuan barruan dagoanez, Arratian be abian dau kanpaina.

Informazino diptikoak eta patruilak

Ertzaintzak informazino berbaldiak emon ditu eta aholkuak jasoten dituan diptiko bat banandu dau, 5.000 kopia Ertzaintzak emondako datuen arabera. "Horrezaz ganera, nekazaritza gune honeetako Ertzaintzako patruilak zuzenean hartu-emonak izango dabe heritarrekaz, inguruotako prebentzinoak eta zainketea indartuteko" dinoe Ertzaintzako prentsa zerbitzutik.

ZEBERIO

Jaietarako prest

Zeberioko Udalak Sanatolinetako I. Kartel lehiaketea antolatu dau aurten jaiak iragarteko.

Erredakzioa

Kartelak abuztuaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxean. Egile bakotzak lan bi aurkeztu ahal ditu gehienez; 70 cm x 50 cm tamainakoak. Tamaina honetan espazio bat gorde behar da egitarauarentzat. Kartelean agertu behar dan derrigorrezko testua hau da: San Antolin Jaiak. Zeberio 2011. Irailaren 1etik 6ra arte.

Irabazlearentzako saria Saldaraingo Txaro Sagardotegian persona birezko afaria izango da.

Sanantolinakaz urrietan sartzean gara. Zeberioko jaiak udako azkenetakoak dira eta asko azken aukera honetaz baliatuko dira udako azkenengo parrandak egiteko ikasturtea hasi aurretik. Aukerarik ez galtzeako hona hemen egitaraua.

ABUZTUAK 28, domekea

10:30etan, Asel Ozerinjuregi XVII. Memoria. Txirindulari lasterketea kadete mailakoa.

URRI LEHENENGOAK 1, eguena

17:30etan, Frontenis txapelketearen finala.

19:00etan, Jaien hasiera. Txupina LOS INCANSABLES txarangeagaz, Zeberioko Txubelaxuagaz eta buruhandiakaz.

21:30etan, Herri afaria, txahal errea.

23:00etan, Erromeria OBANEUKEgaz.

URRI LEHENENGOAK 2, barikua

12:00etan, Umeentzako ekintzak eta puzgarriak.

12:00etan, Mezea eta barauskarria.

17:00etan, Umeentzako motor, patinete eta abarren lasterketea.

18:00etan, PIRRITX, PORROTX ETA

MARIMOTOTS pailazoen *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna.

19:00etan, ZAPARRADA batukadea.

22:00etan, kontzertuak ANJE DUHALDE, ZE ESATEK, eta LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS.

URRI LEHENENGOAK 3, zapatua

11:00etan, Herri kirolak koadrilen artean.

12:00etan, Zeberioko Musika Eskolako musikariak (helduak).

13:00etan, Tortilla, gisau eta makailao txapelketak aurkezteko ordua.

19:00etan, Kontzertu maratoiaren hasiera SUTE taldeagaz. Ostein, TAPACUBOS. PALAZO EN LA

CARA. SEIS METROS BAJO TIERRA. NIK KHAOS. BAJO PRESION. EL LOBO DE ARMAÑON. STRICALLA. ITZIARREN SEMEAK eta FEOS PERO MAIOS.

URRI LEHENENGOAK 4, domekea

11:00etan, Zeberion Karran III. Lasterketea.

12:30etan, Laura Orueren aldeko XII. urteurren mezea.

13:30etan, Bits jaia.

13:30etan, Zeberioko Musika Eskolako trikitilari gazteak.

18:00etan, Untzueta Jantza Taldea.

21:00etan, Zeani Antzerki Taldearen *Ordubete Gerbasiogaz* antzezlan.

URRI LEHENENGOAK 5, astelehena

12:00etan, Ume eta gazteentzako jolasak.

14:00etan, Poteoa trikitixegaz.

15:00etan, Indababak lagun artean.

19:00etan, Esku pelota partiduak Javier Uriaren VIII. Memoria. Zeberioko gazteak eta profesionalak.

AREATZA

Billaroztarrak kaleak hartuko dabez

Jaietan erakusten dabe argien, gure bailarako herriak bakotzak bere nortasuna.

Erredakzioa

Areatzan herritarren musika zale-tasunaren erakusleho izango dira herriko kaleak. Jaietan, Areatzako Bandak, tanborradeak, txistulariak, jantza taldeak eta maioretak soinu eta kolorez beteko dabe herria.

ABUZTUAK 23, martitzena

14:00etan, Txupina. Eleizako kanpantoreko kanpaiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Buruhandi eta Erraldoiak eta Areatzako Banda.

18:30etan, EHUNZANGO Batukadea.

20:00etan, Salbe herrikoia.

23:00etan, Erromeria TXIMELETAgaz.

00:00etan, XVIII. Play-Back lehiaketea.

ABUZTUAK 24, eguaztena

06:00etan, Mortero jaurtiketea.

11:30etan, Meza nagusia.

12:30etan, Ohorezko aureskua.

12:45etan, Herri kirol erakustaldia eta umeentzako herri jokoak.

18:00etan, Pelota partiduak.

22:00etan, Areatzako Bandaren kontzertua. *Munduko Musikak*.

00:00etan, MAR-ISK-AL DJa.

ABUZTUAK 25, eguena

11:00etan, Animen aldeko mezea.

11:00etan, Koadrilen olimpiadak.

12:00etan, Areatzako Dantza Taldea.

12:30etan, Adinekoentzako barauskarria.

17:00etan, Briska txapelketea Uparan Jubiladuen Alkarteak antolatuta.

18:00etan, Tortilla lehiaketea (aurkezpena).

19:00etan, Askari herrikoia.

20:00etan, Frontenis finala.

20:30etan, Trapuzko pelota finala.

23:00etan, Erromeria TRIKIZIOgaz.

02:00etan, Txokolatea Amnistiaren Aldeko txosnak antolatuta.

ABUZTUAK 26, barikua

10:30etik 14:30era, Umeentzako

puzgarriak.

14:00etan, Paella lehiaketea.

17:00etan, Tute txapelketea Aldamin tabeman.

19:00etan, Rally poteoa.

19:30etan, INFONCUNDIBLES taldearen *Diabolo Clasic Metal* antzezlan Pedro Añibarro parkean.

23:00etan, kontzertua MG, VEN-DETTA eta GOVERNORS taldeakaz.

02:30etan, DISC BREAKERS.

ABUZTUAK 27, zapatua

12:00etan, Ibilaldia bizikletan Euskaltel Euskadi Iturimorro Txirindularitza taldeak antolatuta.

14:00etan, Makailao lehiaketea (aurkezpena). Gorbeaiako Gurutzea Athleticeñ Peñak antolatuta.

17:00etan, Mus txapelketea Batzokian.



Areatzako jaietako kartela.

ZEBERIO



Gora San
Antolin!

Jai herrikoi eta
parte-hartzaileen alde

Areatzako
Udala

Jai batzordeak eta
Areatzako Udalak

Gora San Bartolomeak!

JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

19:00etan, Danborrada Txiki.

22:30etan, Gau suak ASTONDOA pirotekniagaz.

23:00etan, Kalejireia, Areatzako tanborradea, Areatzako maioretak, zalgurdiak, koadrilen jeitsiera.

00:00etan, Erromeria JO TA HANKAGAZ.

02:00etan, Areatzako tanborradea.

ABUZTUAK 28, domekea

13:00etan, Meza nagusia.

17:30etan, Pelota partiduak.

19:00etan, Umeen Play-Back lehiaketea.

21:00etan, Afari herrikoia.

22:30etan, Erromeria JOKALDI taldeagaz.

00:00etan, Azken txupina.

ARRATIA

EAJk Osakidetzako erantzun automatizauak kentzeako mozinoa aurkeztu dau

Erredakzioa

Arratiako EAJ-PNVk Arratiako udal-teeetan mozinoa aurkeztu dau Eusko Jaurilaritari eskatzeko telefono deiak Osasun zentroetako langileak erantzun daiezan eta ez operadore automatizauak.

Osakidetzak ipini dauan telefono deiak erantzuteko sistema automatizau barriak zailtasunak sortzean deusez erabiltzaile askori. Ganera, erabilten dan lehenengo hizkuntza gaztelania izateak be komunikazioa zaildu ahal daua dinoe EAJ-PNVkoak. Hori dala-eta, mozino bat aurkeztu dabe Lopez Lehendakariari eta Bengoa Sailburuari eskatzeko arreta telefonikoko sistema ebaluetako zailtasunak dituen erabiltzaileen ikuspuntutik. Baita, sistema aldatzeko, lehenengo aukera moduan zuzenean anbulatoriokoakaz berba egitea eskeintzeko, eta euskera izan daitela erabilten dan lehenengo hizkuntza.

IGORRE

Handitze eta egokitze lanak eskoletan

Erredakzioa

Lanak hasi dira eta ikasturtea hasten danerako amaituta egongo dira. Igorreko Udalak udako oporrak aprobetxauko ditu Inazio Zubizarreta herri ikastetxean lanak egiteko. Udalak jakitera emon dauanaren arabera, eskolako zuzendaritza, guraso artea eta hezkuntza zinegotziak uste dabe eskolan gero eta ume gehiago dagozala eta leku faltea handitzen dala ikasturte ikasturtera.

Gela barri bat eraikin txikian, goiko solairuko egiturea hobetu eta erabilerari anitzeko gela bat egingo dabez. Komunak be handituko dira. Beharrezkoak udalak hartuko dau bere gain.

Eraikin handian, barriak, Eusko Jaurilaritzak jantokia eta sukalde barritutako lanak hasi zituan garagarrian.

Karrale Aurrekoetxea hezkuntza zinegotziaren esanetan, "hobekuntza lan honek beharrezkoak dira, azken urteotako matrikulazio hazkundearen aurrean instalazioak egokitze".

IGORRE

Akordioa lortu dabe Gea Iberican

Erredakzioa

Lau hilabetetik gorako gatazkearen ostean, akordio batera heldu dirala enpresa komitea eta enpresa buruak emon dau jakitera LAB sindikatuak. Burrukea zezeila inguruan hasi zan enpresak 30 langile kaleratzeko plana aurkeztu eta 7 langile kaleratu zituanean. Lortutako akordioak, kaleratutako 7 langile horreetatik 2 langile berronartu eta beste bostai 45 egun urteko kalteordainaz aparte 14.000 euroko saria ordaintzea jasoten dau. Ganera, aurrejubilazioak eta alde egin

gura daben beharginentzako ordainsari bardina ipini dau mahai ganean eta langile gehiago ez kaleratzeko konpromisoa hartu dau Igorreko enpresek.

Lau hilabete luzeko burrukea

Zezeila aldera Gea Iberica Igorreko enpresek 30 langile kaleratzeko asmoa plazaratu eban. Komite eta enpresako zuzendaritzaeren arteko negoziaketa bertan behera geratu ondoren, enpresek 7 behargin kaleratu ebazan eta behargin gehiago kaleratzeko asmoa adierazo eban. Langileak kontzentrazioak egi-

ten hasi ziran egoera hau salatzeko. "Udaletxera be jo, mozino bat aurkeztu eta udalbatzaren erabateko babesa jaso eben beharginak. Herrian be manifestazio ugari egin zituen, udalbatza osoaren eta herriko alkarteen babes zabala lortuz. Igorretik kanpo, Geako beharginak Guggenheim museoan egin eben antzezlan bat. Enpresak akordio batera iristeko borondate ezaren aurrean, mobilizazioak jarraitu eta ordubeteko geldialdia egiten hasi ziran langileak 10 eguneko greba deialdiagaz amaitzeko" azaldu dau Alex Azpiri LABekoak.

ARRATIA

Ermitarik ermita, jairik jai

Erredakzioa

Abuztuan jai ugari ospatuten dira gurean, auzune eta ermita inguruetan. Dimako Artaunen hasiko dira auzuneko jaiak ospatuten. Ostean, Sanlorentzoak Bediako Murtatzen, Zeanuriko Otzerinmendin eta Zeberio Elizondon ospatuko dabez; Igorren eta Zeberioaganen, andramariak; Sanrokeak, barriz, Dimako Olazabalen eta Bediako Erosogarten eta Sanbartolomeak, Zeberio Uxarren eta Igorreko Urkuzun. Hona hemen egitarauak.

San Bizente jaiak

Artaun (Dima)

ABUZTUAK 6, zapatua

19:00etan, Txupina. Jaien hasiera.

19:30etan, Txitiburduntzia. Urdaia eta pamitxa guztientzat.

19:30etan, Bola txapelketea XIV. Lourdes Soraluze saria.

20:30etan, Zaldiak Idien aurka. Artaungo zaldi txikiak Zeanuriko Mintegi baseriko idien aurka (Undurraga).

23:00etan, Kontzertua PUERPEROS taldea.

ABUZTUAK 7, domekea

12:00etan, Mezea.

13:00etan, Gazte Barri Jantza Taldea.

13:30etan, Triki-poteoa. Bertsolariak: Iturriotz eta Olibares. Trikitixan: JON ETA IBAI.

18:30etan, Herri kirolak: Motozerra erakusketea, aizkolariak, harrijasotzaileak eta trontzea

21:30etan, Erromeria NARBAIZA ETA JAINAGAgaz. Tarteetan, mozorro lehiaketea.

ABUZTUAK 8, astelehena

12:00etan, Auzoan hildako guztien

aldeko mezea.

12:30etan, Mus txapelketearen hasiera.

12:30etan, Umeen jolasak.

17:00etan, Briska txapelketearen hasiera.

19:00etan, Tortilla txapelketea.

20:00etan, Ugel txapelketea.

21:00etan, Jaien amaiera eta auzokoentzako txokolatea.

Sanlorentzoak

Murtatza (Bedia)

ABUZTUAK 10, eguaztena

11:30etan, Mezea Murtatzen. Ostean, hamaiketako eta trikitixa.

Mus txapelketea.

17:00etan, Briska.

San Lorentzo ermitan (Zeanuri)

Mezea eta barauskarria.

Elizondo (Zeberio)

ABUZTUAK 10, eguaztena

13:30etan, Barauskarria.

Andramariak

Igorre

ABUZTUAK 15, astelehena

10:30etan, Gazte mailako txirindulari lasterketea XXXIII. Andra Mari saria. Lehendakari Agirre kalean hasi eta amaitu.

11:30etan, Pelota partiduak goiko plazako frontoian.

12:00etan, Mezea Andra Mari parrokian.

12:40etan, Barauskarria goiko plazan.

16:30etan, Mus eta Briska txapelketeak.

17:00etan, Umeentzako tailerak Lurrarinek Gazte Asanbladaren eskutik (3 eta 8 urte arteko umeentzat).

18:00etan, Ugel txapelketea.

19:00etan, Erromeria JOKALDI taldeagaz beheko plazan. Sangria

doban.

Zeberioagane

ABUZTUAK 15, astelehena

13:00etan, Mezea.

13:45etan, Barauskarria.

ABUZTUAK 21, domekea

13:00etan, Kofradien mezea.

Sanrokeak

Olazabal (Dima)

ABUZTUAK 15, astelehena

12:30etan, Txakoli eguna.

ABUZTUAK 16, San Roke eguna

12:00etan, Mezea.

13:00etan, Bola txapelketea.

18:00etan, POTXIN ETA PATXIN pailazoak.

19:00etan, Gorriti eta bere abereak.

20:30etan, Erromeria JAINAGA ETA NARBAIZA taldeagaz.

22:00etan, Txokolatea.

ABUZTUAK 17, San Roke Txiki eguna

12:00etan, Mezea.

12:30etan, Umeentzat jolasak eta baloi banaketea.

12:30etan, Mus txapelketearen hasiera.

14:00etan, Zozketea.

17:00etan, Briska txapelketea. Izena emoteko 16:45tik 17:00etara.

Bediako San Roke ermitan

ABUZTUAK 16, martitzena

11:30etan, Mezea San Roke ermitan.

12:30etan, hamaiketako, trikitixa eta jantzak.

Sanbartolomeak

Uxar (Zeberio)

ABUZTUAK 24, eguaztena

12:00etan, Mezea.

12:45etan, Barauskarria.

Urkuzu (Igorre)

ABUZTUAK 24, eguaztena

Mezea eta barauskarria.

ARRATIA

Begoñara erromesaldia Andra Mari bezperan

Erredakzioa

Arratian tradizioa dan moduan, Andra Mari egunaren bezperan, abuztuak 14, hainbat arratiar oinez abiatuko dira Begoñan mezea entzuteko. Erromesak Igorreko plazan batuko dira gaubeko hamarrak aldean eta, gitxi gorabehera lau orduko ibilaldia egin eta gero, helduko dira basilikara. Han, lehenengo mezea, goizaldeko 04:00etako, entzungo dabe. Erromesaldi hau herritarrek eurak antolatuten dabe.

ARRATIA



Undurragako presea.

Zebra muskuilua Undurragan

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak izokin familiako arrainen arrantza Arratia ibaian, eta karramarroak harrapatzea Undurragako presan debekatu eban zebra-muskuiluaren larbak topau ebazalako, garagarrian. Larbak topau eta gitxira Espainiako Ingurumen Ministerioak jakinarazo eban zebra muskuilu helduak be topau dabezala Undurragako aintziran, Kantauriko isurialdean lehenengoz. Urrunaga eta Uribarri-Ganboa aintzirakaz lotuta dago Undurragakoa.

Espezie inbaditzaile hau Ebro ibaian agertu zan orain dala bost urte eta arazoak sortzean ditu bertako fauna kaltetuz eta ur hodiak itxiz, kalte batzuk aita-tearren.

BURUKO APAINGARRIAK

Burua janzteko burukominak historian zehar

Bizkaiko Foru Aldundian dagoan Francisco de Mendietaren "Boda de hidalgos" koadroan, Begoñan ospatutako ezkontza batera joandako Bizkaia osoko andrak pintau zituan Mendietak. Androk zapiak daro ez buruetan, modu desbardin eta ikusgarrietan lotuta. Hor 48 andra agertuten dira buru apaingarriakaz; tartean, Arratiakoa.



Maribi Cañibe bagilean Areatzan egin zan Euskal Jaian.

Erredakzioa

Maribi Cañibe eta Esti Santisteban ama-alabak, Sanca Alkartea sortu eta historian zehar andrazkoen buru apaingarrien ganeko ikerketa egiten emon dabez azkenengo 14 edo 15 urteak.

Erdi Aroan andrak buruko zapiak zelaz janzten zituen eta zelakoak ziran erakusten dabe andra bi honeek erakustaldien bidez eta tailerrak emonez. Sasoi haretako janzkerak eta orrazkerak, sasoi haretako gizartea zelangoa zan eta orduko Historia kontetan deuskue.

"Guk daukagun burukoen bilduma orain 14-15 urte hasi zan. Janzkerak eta burukoen inguruko estudio bat da gurea. Euskal Herrian eta Iparraldeko hegoaldean gure arbasoen janzkerearen inguruan sortutako jakinmina oinarri hartuta hasi zan estudio hau. Dokumentazio lanen arabera XII. mendetik XVI.era bitartean kokatzen da, XVII. mendean hasieran buruko honeek erabiltari itxi jakon arte" dino Maribi Cañibe Sanca alkartekoak.

Euskal Herriko dama izatetik...
"Gure ohiturak ezagutzera

emoteari inportantea ereitzen deusat. Mendetan zeharreko traiektozia bat dago garana izateko. Euskal Herriko androk ez garran modukoak hargaitik, gure arbasoak burruka bat egin ebela bano, eta horregaitik gagoz gaur egunean gizartean gagozan lekuan" dino Cañibek.

Zapi ikusgarri horreek gaur egun baino zabalagoa zan Euskal Herrian erabilten zirala eta baita Flandrian be dino Esti Santistebanek, baina Iberiar peninsulan ez. "Iberiar peninsulan andrak beloa eroaten eben, baina ez hemen erabilten ziran zapi ikusgarriak.

Neska ezkonbakoak ez eben burua estaltzen eta soilduta eta bekokiuleak eta arpegi inguruan zapa batzuk itxita erabilten eben

Sanca Alkartea 15 urte inguru daroa XII. mendetik XVIII. mendera arteko Euskal Herriko janzkerak ikertzen

Arratiako gizon zaharrak ule luzea erabilten eben XIX. mendean

Flandrian egon zan moda hau: ulearen inguruan kiribildutako ehuna egunero egin eta desegitea eskatzen ebana. Frantzia eta Alemanian, barriz, burukoak txano itzurakoak ziran, desegiten ez ziranak, zurrungoak" azaldu dau Santistebanek.

Burukoak eroaten eban andrazkoaren ganeko informazio asko emoten eben: egoera zibila eta status ekonomikoaren ganeko informazioa batez be. "Andra ezkonduak ziran estalita joateko obligazioa eukien bakarrik. Burua eta lepoa estaltzen zan, batez be eleizara sartzeako momentuan, baina ez orduan bakarrik. Andra bakotzak erioian ehundurearen altuerak eta batez be berga kantitatea bakotxaren erosteko ahalmenaren arabera zan".

Ezkonbakoak, barriz, ez eben buruan zertan ezer eroan. Batzuek ganera burua soildu egiten eben bekokiule batzuk eta arpegi ondoan zapa batzuk itxita.

Burukoaren ehundurea linozkoa izaten zan. "Sasoi haretan oihala karua zan. Eta asko behar izaten zan altuera apur bat hartzeako. Guk 6 m. erabilta egiten doguz batzuk eta ez dabe apenak alturarik hartzean. Torreetxetako damak, Areatzako Gortazar torreetxetakoak, barbarako, metro asko erabilten eben; erdi mailakoak, barriz, buruko sentziloak izaten zituen".

Mendietaren koadroan Arratiako damaren burukoak nahiko sentziloa da.

... sorgina izatera

XII. mendekoak nahiko sinpleak ziran, baina gero eta handiagoak egiten joan ziran. Eta heldu zan momentu bat non eleizak debekatu egin zituen eukiezan forma falikoakaitik. "XVI. mendean hasi zan buruko horreen gainbeherea. Alde batetik krisi ekonomiko egon zan eta horreek buruko orreek oso karuak ziran, behar eben oihal eta apaingarriakaitik.

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igozse

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igozse

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Egarren Hezkuntza, Baxilegokoak, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 beheak
48140 Igozse

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Naturazko ospitalea

Landa Turismoa
Erpinak Zerbitzua

Altzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

Eta bestetik, kanpoko jentea, Santiago bideko erromesak eta, harritu egiten ziran hemengo andren janzkera eta joan-etorriak ikusita. Gero Inkisizinoa etorri zan eta Pierre de Lancre eta beste inkisidore batzuk burukoa falo itxu-reagaz ikusten hasi ziran" dino Santistebanek.

"Eta ganera belagile asko egozan, ez bakarrik sendatu, baita umea egiten eta abortetan lagunduten ebenak. Eta Inkisizinoari, eleizari, txarto iruditu jakon andrak horrenbesteko poterea eukitea horretan eta amaitu gura izan eban bizimodu horregaz" gehitu dau Cañibek.

Janzkera andrazkoen kontrolerako erremintea izan da beti eta buruko horreek debekatu egiten ziran. Harrezkerotzik, mun-

Arratiako gizonen zapak eta sonbreluak ez dira atzean geratu. Izan be, gizonak be beti estali egin dabe burua kapelakaz, eta orrazkerak modaren arabera asko aldatu izan dira. Eta horretan be, nahiko espezialak izan dira arratiarrak.

Ezagunak dira Eulalia Abaituak XIX. mendean Arratiako gizonai ateratako argazki bi. Orain dala gitxi arte, argazkiak lekuko, Arratiako gizon zaharrak ule luzea erabilten eben, eta sonbrelua janzten eben. Eulalia Abaituaren argazki baten, orrazkera hori ikusten da, bestean, barriz, sonbrelua daroa arratiarrak.

"Buruan jartzen zan txano hau fieltrozkoa izaten zan. Jaiegunetan ipinten zan, baina XX. mendean lehenengo hamarkadetan eroate-



"Boda de hidalgos" koadroa.



du zabalean sorginak txano altu eta puntadun bat daroe. Askotan, erdi tolestuta, falo itxurea hartuz, Bizkaiko andrak erabilten eben buruko zapien antzekoa.

Dana dala burukoa ez zan guztiz desagertu. "XVIII. mendean oraindino baegozan herrietan andra zaharrak erabilten ebenak, hori barik txarto jantzita sentiduten ziralako. Hemen tradizioak ixtea asko kostetan jaku. Eta hori baserritar jantzieta zapia bilakatu zan. Eta painelu hori ia gaur arte mantendu egin da" dino Santisteban Sancako iker-tzaileak.

Arratiako gizonen zapak eta sonbreluak

Harrigarria izan bada Bizkaiko andrak burua estaltzeko erabilten ebezan zapiak eta estaltzen ez ebenetan haren orrazkera,

ko ohiturea galdu egin zan" jaso dabe Angel Larrea eta Juan Rekaldek *Arratia Inguruko Hiztegia*.



Arratiako gizona kapelagaz.

publicidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

**Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta
649 979 112**

begitu@topagunea.com

Tel. 94 631 60 06 • email: info@ararotz.com

ARA OTZ

Landegien O Jartzen!

Parro Ugarana 2 et. - ADAR Dena - Tolosa www.ararotz.com

OPEL

ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEVADA (Bizkaia)
Telfa: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

JANDONIZ

ragusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

HERRIKO BENTA

HOSTAL

HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

inbiu
11.09.24

lipdub

euskera eguna

10:30 **Lip dub udaletxeko plazan**

13:00 **Pintxo jana**

15:00 **Herri bazkaria
Lasarteko plazan**

17:30 **Jokaldigaz erromeria
AMEk antolatuta**

21:00 **Txokolatea danontzat**

Logo for 'Euskera' (Basque Language) with a star.

Logo for 'EUSKO JANTZITZA OINARREAN' (Basque Dressing Foundation).

Logo for 'BFA DFB' (Basque Football Federation).

Logo for 'IGORREKO UDALA' (Gorria District Council).

FUTBOLA

Arratiako futbolarien taldeak datorren denporaldian

Gure eremukoak diran goi mailako futbolari edo futbolagaz zerikusia daukien futbolgizonen nondik norakoak dakarguz ligea hasteko dagoan honetan.

Maialen Egileor

Arratiak barriro be eukiko dau futbolari bat lehenengo mailan jokotuten eta hori Beñat Etxebarria izango da. Igorretarrak pasa dan denporaldian luzatu eban bere kontratua Betisegaz eta, mailaz igon ostean, Beñatek talde handien kontra jokotutako aukerea eukiko dau.

Bere lehengusuak be, Alex Goikoetxea arteztarrak, lehenengo mailako Granadagaz sinatu dau kontratua urte birako. Baina denporaldi honetan Bigarren B mailako Cadizen jokotuko dau itxita.

Aitor Iruarizaga "Iru", Igorrekoa, Athleticeko atezainen entrenatzaile barria da. Lehenago be ibili izan da kanterako atezainak prestatuten, baina orain Marcelo Bielsak zuzenduten dauan talde teknikoaren parte bihurtu da.

Eta Athleticen, bere bigarren taldean hain zuzen be, hiru igorretar ibiliko dira. Xabier Etxebarriak beste urte baterako luzatu

dau kontratua, Ander Vitoria Lezamara bueltau da Lemoan itxita egon ostean eta Lander Yurrebasok Baskoniatik Bilbao Athleticera saltoa emon dau.

Euren kontra jokotuko dau Luis Prietok. Dimoztarrak Alavesegaz sinatu dau denporaldi baterako. Holan, Luis de la Fuenteren aginduetara egongo da barriro be, Athleticeko lehenengo urteetan beragaz koinziditu eban eta.

Bigarren B mailan alkarren aurka ibiliko diran beste jokalarrietako bat Txema Añibarro da. Zeberioztarrak Eibarko erdilari izaten jarraituko dau beste urte baterako.

Iker Bilbao dimoztarrak be Zornotzan segiduko dau, baina urte honetatik aurrera bigarren B mailan. Izan be, aurreko denporaldian mailaz igon ziran, taldearen historian lehenengo aldiz.

Aitor Vitoria atezaina Zornotzan dabil aurrendenporaldia egiten eta Lemoan Unai Agorreta gaztea.

MENDIA

Gasherbrum I eta II-ko tontorrak zapaldu ostean K-2 dau helburu Txikonek

Erredakzioa

K-2ko kanpo basean da Alex Txikon, jarraian hirugarren zortzimilakoa egiteko asmoz. Gasherbrum I eta K-2 igoteko asmoagaz

joan zan Alex Txikon, baina aklimatazioa aprobetxauz Gasherbrum I eta II-ko tontorrak zapaldu ditu lemoztarrak 9 egunetan. Orain, eguraldia noiz hobetuko zain dago hirugarren tontorrari ekiteko.

Garagarriaren 13an zapaldu eban G-len tontorra (8.080 m.) eta 22an G-Ilrena (8.034 m.). Orain, Txikon eta Göschi saiatuko dira K-2an (8.611 m.) bide barri bat zabalduten.

Espedizionak etxera bueltan

Gasherbrum lera igon ostean, Juanra Madariaga eta Jose Carlos Tamayo etxera bueltau ziran garagarriaren 24an. Rousseau be joan da, nekeak jota, eta ez da egongo K-2a igoteko.

FUTBOLA

XXV. Andra Mari torneo

Erredakzioa

Abuztuaren 12, 13 eta 14an jokotuko da Arratia futbol taldeak udalaren laguntzeagaz antolatutako Andra Mari Sariaren XXV. edizioa Igorren. Lehenengo egunean Arratiak, SD Amorebietaren kontra jokotuko dau. Hurrengo egunean, 13an, Lemoak, Durangoko Kulturalaren kontra jokotuko dau eta finala hilaren 14an, domekaz

izango da, aurreko eguneko partiduak 18:00etan jokotuko dira Urbietan zelaian.



Lemoa futbol taldekoak Igorren entrenetan.

AKETEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
okutze@jatzetze.com

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agirre, 23 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 • Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industriaidea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

ekin s.l.
LABORATORIOS
Lan publikoak, indusketak, garrarioak, ur sareak, saneamentu sareak, baserri eta basoko bideak, pabeloak, urbanizazioak
Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Enxeka Garrarioak
Mugikorra 629 465 335
Arantzeta, 12 LEBION
Tfno.: 94 631 50 82 Fax: 94 631 51 81

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org • 675 705 111

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfno.-Faza 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN ✓
ONDARUN HIRIARRAZEN ASIGURUTAN ✓
Sabino Arana, 3 Tfno.: 94 673 71 41 - Fax: 94 673 64 01 - 48140 IGORRE

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagari) Tel.: 94 430 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

SEGA

Goioaga Bizkaiko segalaririk onena



Miguel Angel Goioaga Kerman Egiluz alboan daukala.

Jon Urutxurtu

Migel Angel Goioaga Undurragako zeanuriztarrak jantzi dau 2011ko Bizkaiko segalarien txapela. Amaiterminen (Abadiño), Basaguren jatearearen ondoko zelaietan jokatzen txapelketea garagarriaren 25ean, Santiago egunean, arrastiko 18:00etatik aurrera. Eguraldia egokia ez bazan izan be, lanparra egin ebalako, hainbat jente hurreratu zan txapelketea ikustera, batez be Arratia aldetik.

Ordubeteko saioa egin behar eta sei segalari —hiru arratiar tartean— kodainan: Migel Angel Goioaga Kerman Egiluzek lagunduta, Jon Intxaurbe zeanuriztarrak, Santos Intxaurbe aitak lagunduta; Jaime Atxa Areatzakoa, Pabi Astondoak lagunduta, Larrañaga, Arrazolakoa; Gondra, Errigoitikoak, eta Maguregi, Arzentaleskoak.

Landea ondo prestatuta egoan, bedar askogaz, baina

aurreko egunetako euriak eta proba jokatu zan bitartean egin eban lanparrak segalarien lana gogortu egin eban, eta bateri baino gehiagori ordubeteko saioa luzeegia egin jakon. Irabazteko faborito nagusia Migel Angel Goioaga zan eta ez eban hutsik egin, berak ebagi eban kilo gehien eta. Ezustea Maguregi 58 urteko beteranoak emon

eban, bigarren tokia eskuratuz.

Aurtengoa Goioagak lortzean dauan hirugarren txapela da, aurreko biak 2005ean eta 2008an jantzi ebazan.

Sailkapena era honetan geratu zan: 1. Goioaga, 4.012,5 kilogaz; 2. Maguregi, 3.691 kilogaz; 3. Intxaurbe, 3.590,5 kilogaz; 4. Atxa, 2.918,5 kilogaz; 5. Gondra, 2.791 kilogaz, eta 6. Larrañaga, 2.778 kilogaz.



Jon Intxaurbe.



Jaime Atxa.

LASTO ALTZATZEA

"Tubi" dimoztarra Bizkaiko txapeldun

Erredakzinoa

fardoa jasoz.

Jose Martin Bustintza "Tubi"k eskuratu eban Bizkaiko Lasto altzatze txapela Markinan garagarriko egun eguzkitsu baten eta publiko handiaren aurrean. Dimoztarrak 22 jasoaldi egin zituan. Jon Lapazaranekek 21 jasoaldi egin zituan eta ezin izan eutsan arratiarrari txapela kendu. Parte hartu eban beste arratiarrak, Jose Mari Atutxak, barriz, bosgarren egin eban 19 aldiz

Euskal Herriko txapelketak Kirolariak daukazan hurrengo zitak Euskal Herriko Lasto Botatze eta Lasto Altzatze txapelketak dira. Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea hilaren 15ean izango da Etxalarren (Nafarroa) arrastiz.

Euskal Herriko Lasto Altzatze Txapelketea, barriz, urri lehenengoaren 3an izango da Donostian. Hau be arrastiz.



Jose Martin Bustintza "Tubi" lastoa altzetan.

NON?



KAROBIA

Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean isiotuko da karobia abuztuaren 6an

Otzerinmendiko 9 sukaldariak emongo deusie su karobiari. Hurrengo egunean kanpai barria ipiniko da ermitan.

Jon Urutxurtu

Abuztuaren 6an, zapatuan, San Justo egunean eta goizeko 11:00etan isiotuko dabe karobia Zeanuriko Otzerinmendi auzoko 9 sukaldariak, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, eta urteetan zehar ahaztuta eta amatauta egon dan ke zurizkea San Justoko haretxen artean igongo da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Domeka eguerdirantza, kare bizia oka egiten hasiko da labe-agoa.

Aurten, 1996an zaharbarritu eta berreskuratu ebanetik —50 urte amatauta egon ondoren— hamaseigarren aldia izango da karobia lanean ipinten dauala Ipizki Taldeak. Isiotuteko ekitaldiko protagonistak Otzerinmendi auzuneko bederlatzi sukaldariak izango dira. Modu horretan, auzune honetako bitxikerietako bat ezagutzera emon gura dalarik; izan be, gitxi izango dira Euskal Herri osoan auzune berean horrenbeste sukaldari daukiezan lekuak. Honako honeek dira bederlatzi sukaldariak: Gabriel Etxebarria, Antonio Intxaurbe, Jon Beobide, Frantzisko Etxebarria, Iñaki Olibares, Javi eta Maximo Beitia anaiak, eta Fernando eta Alberto Zuluaga anaiak, azken honek Michelin izarra lortu eban Aretxondo jatetxean behar eban zanean.

Karobia isiotu ostean, hamaiketako egongo da San Justora hurreratzan diran guztientzat, Iñaki Arraindegiak emonda.



San Justoko karobia.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

Ostera, 14:30ean, auzo-bazkaria egingo da San Justoko harestipean. Bazkari herrikoi horretan edozeinek parte hartu daike, baina garagarrilaren 31 baino lehenago izena emonda honako telefono honeetako batera deituz: 94 673 92 50 edo 653 016 117.

Erromeria eta kanpai barria

Hurrengo egunean, abuztuaren 7an, domekan, San Justoko erromeria ospatuko da. 12:00etan mezea izango da, baina mezearen aurretik, 11:30ean kanpai

barria bedeinkatu eta ipiniko da ermitearen kanpantorrean, aurtengo udabarrian, bertan egoan kanpaia ostu egin eben eta. Kanpai barria Gajano-ko (Kantabria) Portilla anaien tailerlean eginda dago eta honako idazkiak eroango dauz grabauta: goiko aldean, Justo eta Pastor santuak eta behekoan, Otzerinmendiko kofradia—2011-VIII-7. Lapurretak dirala eta, jaiak amaitu ostean, kanpaia kanpantorretik kendu egingo da,

datorren urtera arte.

Mezearen ostean maidor-moak barauskarria —ardao zuria eta gailetak— bananduko dau jentearen artean eta jarraian paella txapelketea izango da.

Egualdia lagun eta ohitua jarraituz, asko izango dira San Justoko harestipean bazkaltzen geratuko diranak, eta arrastian 17:30etik aurrera, bola eta mus txapelketetan parte hartzeako aukerea izango dabe.

San Justo jaiak Otzerinmendin

Zapatua, abuztuaren 6a, San Justo eguna

* 11:00etan: Karobia isiotutea: Otzerinmendiko 9 sukaldariak isiotuko dabe Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean.

* Isiotu eta gero, hamaiketako, IÑAKI ARRAINDEGIAK emonda.

* 14:30ean: Auzo bazkaria. Bazkarian parte hartzeako, izena emon garagarrilaren 31 baino lehenago honako telefono batera deituz: 94 673 92 50 edo 653 016 117.

Domekea, abuztuaren 7a

* 11:30ean: Kanpai barria bedeinkatzea eta kanpantorrean jarrea.

* 12:00etan: Mezea.

* Meza ostean, barauskarria.

* 13:30ean: Paellen aukezpena.

* 17:30ean: Bola txapelketea eta Mus txapelketea.



San Justoko erromeria.

Argazkia: Jon Urutxurtu.

TXAPELKETEA

Pascuas lehenengo eta Bilbao bigarren

Erredakzioa

Garagarrilaren 2an, Igorreko Kultur Etxean egin zan Igorreko X. Aurreku txapelketan, Arkaitz Pascuas, Bizkaiko eta Euskal Herriko txapelduna dana, izan zan irabazlea. Bigarren, herriko semea dan Julen Bilbao gelditu zan eta hirugarren Ruben Pena. Lehenengo andrazkoak, Ibabe Beristainek laugarren egin eban. Asier Etezarraga igorretarra seigarrena izan zan.



Julen Bilbao.

ASESORIA
Gorbeialde
Juridika · Fiskala · Lanekara · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfn. 94 673 92 93 Fax. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

expert  **ARRATIA**
E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

arratiako
instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatze sistemak - Aire zurgatze zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industriales, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 736 516
48142 Igorre Bizkaia

MUSIKEA

Gaitak eta tanborra mikrofono aurrean *Bikaña* diskoan



Asier Garcia.

Erredakzioa

Bikaña izeneko diskoa atera eben bagilean Asier Garcia, Martin Ariztimuño eta Jon Gamindek. Aiko taldekoak prestatuta daukie daborduko hurrengo diskoa, Durangoko Azokarako kaleratuko badabe be. Aiko, musika eta jantza tradizionalak bultzatzeko sortu zan eta erromerietako musikea argitaratzeaz ganera, erromeriak antolatuten ditu. Gaur egun, 400-500 jantza ikasle ditue eta pozik dago Asier Garcia "egindako bideagaz".

Disko bat atera barri dozu eta beste bat ateratzear...

Bai. Bagilearen 18an aurkeztu genduan gure jantzazale egunean. Aikok editautako eta produzidutako disko bat da, baina Martin Ariztimuño, Jon Gamindek eta hirurok grabau dogu. Ibon Larruzearen estudioetan grabautu dago. Larruzeara Europako onenetakoa da *ska*

Ariztimuñogaz berba egin genduan eta *Bikaña* diskoa grabau genduan.

Sabin Bikandik idatzitako piezak dira danak eta konposizino aldetik gaiten soinua ohiko soinuren aldean desbardina da. Gaitak normalean paraleloki doaz jotzen. Hau da, konposizinoa bertikala izaten da: nota bat bestearen ganean. Sabinek beste modu batera idatzi dau, gaita bakotzak bere indarra dauka, bere esangurea, bere esaldiak, bere melodia...

Diskoaren bigarren berezitasuna tanborra da. Guk ez dogu grabau erabilten dan tanborragaz. Nik kaja bat jotzen dot. Estatu Batuetatik ekarritako kaja bat, asko gustetan jatana. Nik uste dot sonoridade gehiago daukala, erresonantzia gehiago. Beste tinbre bat dauka eta polito gelditzen dala uste dot. Joteko modua be diferentea da. Ez dot jotzen modu estandarrean: bururatzen jatana egiten dot, edo jantzarako dana.

Eta saiatu gara gaiten soinua ahalik eta naturalena izan daitela. Gaitak eta tanborra ia besterik ez. Mikrofonoak oso hurbil dagoz eta gaiten benetako soinua entzuten da. Kostau da apur bat nahasketan hori lortutea.

Diskoa bagilean atera zenduen eta garagarriean badaukazuela beste bat prest uste dot.

Bai, beste disko bat grabautu eta nahastuta daukagu, Aiko moduan. Dana dala, Durangoko Azokarako kaleratuko da.

Lehen Durangoko Azoka enpresa handientzako lekua zala pentsetan genduan, baina proba egin genduan eta ikusi dogu beste proiektu alternatibo batzuk be, apurka-apurka lekua daukiela han. Eta orduan seguru asko, aurkezena egingo dogu Plateruenean azoka egunetan eta gure diskoak

Durangon egongo dira.

Eta orain arte ateratako diskoen berredizino bat egingo da negurako.

Disko batzuen bigarren edizioa egingo asmoa daukazue, orduan.

Gabonetarako. *Fasioren mendea* ez, oraindino badaukazue diskoak eta, baina *Urraska*, *Erromeria I*, *Aurrez aurre*, *Kobreik...* *Bikaña*arena be ez, baina beste bost edo sei disko-gaz pack bat egingo da eta Urretxin-dorran erosteko aukerea egongo da.

Jantzari ibiltaria ibiliko da datorren ikasturtean?

Urri lehenengoan barriro hasten da gure jantzari ibiltaria. Gemikan,

Galdakaon, Zarautzen, Zaratamon, Erandion, Durangon... Gero eta ikasle gehiago daukazue eta uste dogu oso momentu politean gagozala, ze zeozer aurrera aterateko lan egin behar da eta uste dogu honetan egin dogula bidea. 400-500 ikasle inguru daukazue eta goazen edozein erromerietara publiko fijo bat daukagu. Ez dira gure ikasleak bakarrik, badaukagu jentea erromeria guztietara joaten dana. Lortu dogu jantza egitea gustetan jakon jentea hurbiltzea, eta horretaz harro gagoz.

Datorren ikasturteari begira, jarraituko dogu hilean behin Plateruenean erromeriak egiten.

ARRATIAKO MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolak Kataluniara egin dau alkartrukea

Clara Luja Azpiri

Arratiarrak Katalunian egon dira musika emonaldiak emoten garagarriean eta katalanak Artea etorriko dira urri lehenengoan.

Pasa dan garagarriaren 8tik 10era Arratiako Musika Eskolako talde batek Kataluniako Esparreguera herria bisitatu eban, eskolak egindako alkartruke baten barruan. Musika Eskolatik hogeita hamabost persona joan ziran eta Amorebietako Musika Eskolako talde bat be bai, eskolearen zuzendaria dan Victor Dominguezek adierazo dauanaren arabera.

Behin Esparregueran Arratiako Musika Eskolak musika tradizionalako emonaldiak egin zituan eta han trikitixa, alboka,

txalaparta eta euskal jantza saioak egon ziran. Emonaldi bi egin zituen arratiarrak: lehenengo garagarriaren 8an, barikuan, ordu eta erdiko iraupena izan ebana, eta bigarrena, Esparreguerako udaletxean egin zana. Domekan kalejirea egin eben. Arratiako gazteak hango familien etxetan egin eben lo.

Urri lehenengoan Artean izango doguz katalanak

Alkartrukea ez da hor amaitzen, urri lehenengoaren 17an Kataluniako gazteak Arratiara etorriko dira eta. Berrehun eta berrogeitahamar inguru izango dirala esan dau Dominguezek, eta Artean hartuko dabe ostatu, familiakaz eta landetxeetan. Kataluniako gazteak *castellersak* dira eta tradizionalak diran persona torreen erakustaldiak egingo ditue Arratian.

Kataluniara biaje eta alkartruke osoa Arratiako Musika Eskolak antolatu dau. Duela 10 urte egin zan lehena eta gaur arte hiru aldiz joan dira arratiarrak hara eta behin etorri dira katalanak Artea. Eskolako zuzendariak dinoanaren arabera, eskolen arteko erlazino ona dala eta, egin dira alkartruke honek.

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

GALANTA
Bametik jantzeko
Zugandik sarotz hartal
merkealdi
Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonoa: 94 631 90 08

bbk

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

RUGBY TABERNA
•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburetan pintxo bereziak
ARRATIKO ZEKORRAK
arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

AGENDEA

ABUZTUAK 4 ZEBERIO

14:00etan, kartel lehiaketarako kartelak aurkezteko epea zarratzen da. Udaletxean.

ABUZTUAK 5 DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" euskal preso eta iheslarien aldeko konzentrazioa.

ABUZTUAK 6 DIMA

Artaungo jaiak (ikus egitaraua 7. orrialdean).

ZEANURI

11:00etan San Justoko karobia isiotuko dabe. Ostein hamaiketako. San Juston (Otzerinmendin).

14:30ean, auzo bazkaria San Juston.

ABUZTUAK 7 ZEANURI

11:30ean, Kanpaia barria bedekintzea eta kanpantorrean ipintea. San Juston (Otzerinmendin). 12:00etan, Mezea eta ostein barauskarria. 13:30ean, Paellen aurkezpena. 17:30ean, Bola txapelketa eta Mus txapelketa.

ABUZTUAK 10 BEDIA

San Lorentzo jaiak Murtatzen.

ZEANURI

San Lorentzo jaiak San Lorentzo ermitan (Otzerinmendi).

ZEBERIO

San Lorentzo jaiak Elizondan.

ABUZTUAK 12 ZEANURI

15:00etan, Andra Mari jaiak hasten dira. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 14 IGORRE

22:00etan, Igorreko plazan Begoñako



Gontzal Mendibil Zeanuriko jaietan

Gontzal Mendibilek bere azken diskoa *Neure txiki polita* aurkeztuko dau Zeanuriko jaietan. Zeanuriz-tarrak Gorbeialde inguruko kantuak batu eta bere ikutu personala emon deutse kantuoi. Kantu batzuk tradizionalak izan arren, egindako moldaketak esker Dire Straits, Peter Gabriel edota jazz-aren swing-a ekarten deuskue gogora, kantuon "sena edo esentzia galdu barik". Zitea, abuztuaren 14an, 22:30ean, Zeanuriko plazan.

basilikara erromesaldian joateko.

ABUZTUAK 15 DIMA

12:30ean, Txakoli eguna Olazabalen.

IGORRE

Andra Mari jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

UBIDE

Amexier Mendi Taldeak antolatuta abuztuko bigarren hamabostaldian Picos de Europara.

ZEBERIO

Andra Mari jaiak Zeberioan.

ABUZTUAK 16 BEDIA

San Roke ermitan jaiak. Eroso-Ugarten.

DIMA

San Roke jaiak Olazabalen. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 17 DIMA

San Roke jaiak Olazabalen. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 19 ZEANURI

Joko Alaik antolatuta astegoieta Pirinioetan.

ABUZTUAK 21 ZEBERIO

13:00etan, Kofradien mezea Zeberioan.

ABUZTUAK 23 AREATZA

San Bartolome jaiak. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

ABUZTUAK 24 ZEBERIO

Sanbartolomeak Uxarren. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ABUZTUAK 27 AREATZA

22:30ean, euskal preso eta iheslarien aldeko konzentrazioa eleiza aurrean. Suak amaitu eta gero kalejirea.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU SALTZEAN DOT

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefona 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikleta (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilita. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefona: 646 448 869.

TXAKURRAK SALGAI

Maiatzean jaiotako 3 txakur kume salgai. Arrazea: Alemaniako artzain-txakur mestizoa. Ama pedigriduna eta aita mestizoa. Deitu 636 132 741 telefonora.

LAN ESKEINTZA ESTETIZISTEA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

DANERIK

APARTAMENTUA ALOKAIRUAN

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefona 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako *Fasioren Mendea* CD-DVD-Liburua.

Kepa Barrenetxea (Gasteiz)
Ziortza Ajuriagerra (Dima)



2

Igorreko Udalak emondako *Gontzal Mendibilen* CD bana.


Galder Olibares (Igorre)
Gaizka Agirre (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Altzau. Selenioa. 2.- Zatik falta ez jakona. Zenbakia. 3.- Lirain. 4.- Zergaitia adierazoten dau. Bokala. 5.- Begiratu. Letra bat. Errepetiduta, kontuz. 6.- Bokala. Edakera. 7.- Edozein gauza. 8.- Zoro. Birritan, antzarren hotsaren onomatopeia. 9.- Musika nota. Pozik.

GOITIK BEHERA

1.- Olgeta. (Atz.) Egile atzizkia. 2.- Lasai. Modua. 3.- Sutsu. Ala. 4.- Bat erromatar. Gezi. Bokala. 5.- Balio Erantsiaren Zerga. Narra. 6.- Santuen aurretik ipinten da. Apurtua. 7.- (Atz.) Letra izena. Euritako.



Topau lau letra daukiezan gizonzkoen zazpi izen.

A	R	K	O	L	I	N	B	O	A
T	A	I	K	U	S	O	J	L	D
E	S	T	A	K	I	S	A	T	E
R	T	U	Z	O	H	A	R	U	L
R	A	O	B	Z	U	G	A	R	O
U	Z	K	I	A	B	E	L	A	M
N	A	R	E	J	A	R	I	L	A
G	A	U	Z	E	T	A	P	O	L
I	D	E	F	E	R	P	O	G	U
Z	O	R	R	E	B	I	T	U	A
U	G	E	K	A	I	J	E	K	O
X	O	I	E	R	O	B	S	A	R
I	R	T	A	K	O	S	O	B	O
B	E	L	E	K	A	T	I	N	U
O	B	O	S	T	Z	A	K	U	R

"Jainkoak eta sexua"

A
i
t
z
i
b
e
r



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Ordie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7.
48140 Igortze (Biskaiak) Tfnoa: 94 632 64 78

Umeen moda 0-20 urte
• Bobbi • Ray • Aranda
• Anr • Gutsuñtr • Arandiga
• Gaudole • Leiz • Massana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA BUKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak 41, A, BTE, 8
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORTZE (Biskaiak)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela eskolaraz zein erdaraz
Gabe, 10 - 48140 Igortze (Biskaiak)
telefonoa 94 631 54 31, Faxo 94 673 70 83
e-posta: urakua@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Polig.Mendieta, n.º 3. 48530 LEMCIA, Euzkadi
Tel. 609 482 830 fax 609 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
kultura elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igortze
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK
Gabe, 29 Telefonoa: 94 673 40 14 IGORRE BIZKAIA

Igorre
BATZAR EGUNAK:
epaiztasunak 20etatik 22etara
Udaltzarke arduratzen
EPA-ko lokalak
KONTAKTATZENO TELEFONOA:
690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

ERLANTZ ESPARTA

"Eskerrak amaren esana bete eta trikitixea jotzen segidu nebala, ostean ez ninteke nagoan lekuan egongo"

Ingurumarietako erromerietan jantza egitekin jantzan egin arazotera pasatu dan Erlantz Espartagaz egon da BEGITU. Bost urtegar klaseetara kostata joaten bazan be, orain hauspoari ez deitso hautsik hartzean ixten. Lagun batzuk batera Zirkinik bez taldean be jotzen dau igorretarrak.

Irati Urien

Lagun berezi bat daukazu: trikitixea. Zer da zuretzat?

Oso gustuko dodan gauza bat. Orain dala hamairu urte hasi nintzan jotzen. Etxean bazkaltzen neban eta ostean trikitixa eukiten neban. Hareetan denporetan obligazio bat zan niretzat, orain osteraz ez. Urtegar, urten, erromerietara joaten hasi eta atezinoa deitu eustan. Eskerrak amaren esana bete eta trikitixea jotzen segidu nebala bestela ez ninteke nagoan lekuan egongo orain.

Ze erromeri taldeetan jotzen dozu? Zelan sortu zan?

Taldearen izena Zirkinik bez da. Hiru taldekide Zornotzakoak dira, beste bat Durangokoa eta ni Igorrekkoa. Halanda be, Endika igorretarra geugaz jotzen hasi da orain, beraz sei gara taldean. Orain dala urte bete, arrasti baten Zornotzan egon nintzan ber-

tako lagun batzuk, ensaietan hasi ginan eta hasieran harek katxondeo itxurea baeukan be, itxurea hartuten joan zan.

Arratiako musika talde gehienak rock estilokoak dira. Zergaitik egin zenuen erromeriaren aldeko apustua?

Beti gustau izan jataz erromeriak. Baina horretatik aparte, aldatu-tearren. Ezin da, beti bardina egin...

Kontu bardinagaz segiduta, zer irudituten jatzu jaietan erromeria beti azkenengo izatea?

Ondo. Ez dot despektibo moduan ikusten. Aproposa dala pentsetan dot. Lehenengoa balitz erromeria jentea ez litzateke mobiduko. Gaubea aurrera joan ahala osteraz, etorri egiten da jantzan egiteko gogoa be.

Honezkeroko ume bat ez bazara be, taldeko emonaldiak dirala eta, juergarako aitzakia errezago?

"Nire ametsetako bat

Xabier Solanogaz

kolaborazoren

bat egitea litzateke,

nire idoloa da"



Baietz esan leiteke. Halanda be etxean badakie guzurrik esan barik kontzertua non eta ze ordutan daukadan. Eta askotan, Arratiatik kanpo jo ezker, amaitu, batu eta etxera bueltetan gara. Etxean desbardina da, juergan segiduten dot. Baina bai, herri askotako jaiak eta jente barrira ezagutu dogu taldearen bidez.

Ze herritako plazak animatu dozuez?

Arratikoak, Ea, Ajangiz, Audio, Otxandio, Zornotza...

Urte honetan zehar, taldea dala eta aldatu da zeozer zeure bizimodua?

Bai. Lotsea kendu dot. Lehen ez neban trikitixea kalean jotzen

munduko ezergaitik be ez eta orain atotan urtegar nintzateke.

Ze erromeri taldegar botako zeunkean itzelezko juerga bat?

Duda barik, Amaiur-egaz. Holangorik ez dot ezagutu. Danok edo ia danok daukagu erreferentzi moduan, ezta? Heldu diran lekura heldutea... Penea emoten deusta amaitu izanak.

Arratian hurrerango "Fasio" bat euki geinke zugaz?

Kar, kar, kar. Ez dot pentsetan. Beste kontu bat zan Fasio; hare-nak arin-arinak, fandangoak... ziran baina orain horreetatik aparte estilo barriago edo ez dakit zelan esan, zabalago bat daukagu erromerietan jotzen dogunok.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



**Banatzaille
ofiziala**







- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.